

KANPAINAREN OINARRIAK

[VERANO EN ZIZUR #YoEnZizur](#)

[UDAN ZIZURREN #NikZizurren](#)

LEHENENGOA: Objektuaren definizioa

Kanpaina honen helburua Zizur Nagusiko merkataritza sustatzea, biltzatzea eta garatzea da, sektorearentzat une zaila den honetan. Beraz, Zizurreko herritarrek erosketak herrian egin ditzaten bultzatu nahi da, denda, ostalaritza-lokal eta hurbileko zerbitzu guztiak ezagutzeko aukera izan dezaten.

BIGARRENA: Parte-hartzaileen betekizunak

Zizur Nagusiko txikizkako, ostalaritzako eta zerbitzuetako merkataritza-establezimendu guztiak atxiki ahal izango dira kanpainara, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea.
2. Zizur Nagusiko udalerrian publikoari irekitako establezimendua izatea eta dagokion udal-lizentzia izatea.
3. Zizur Nagusiko udalarekiko edo beste administrazio publiko batzuekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga- eta tributu-betebeharrak egunean izatea.

HIRUGARRENA: Izen-ematea

Lehiaketan izena ematea doakoa izango da, eta Zizur Nagusiko Udalaren webgunetik online bete beharko da.

Baliabide elektronikorik ez duten pertsonentzat paperezko eskabideak ere onartuko dira Zizur Nagusiko Udaleko Erregistro Orokorrean (ErreniegaParkea, z/g).

Izena emateko epea 2020ko ekainaren 22a baino lehen egin beharko da.

Izena eman ahal izateko, gutxienez 20 euroko gauzako saria aurkeztu beharko da, ondoren txarteletan sartuko dena.

Udalak bere webgunean argitaratuko ditu parte hartuko duten negozioen zerrenda eta bakoitzak kanpainari emango dizkion sariak.

LAUGARRENA: Oinarrien publizitatea

Zizur Nagusiko Udalak deialdiaren berri emango du bere webgunean (www.zizurmayor.es), udaleko iragarki-oholetan eta sare sozial ofizialen profiletan.

BOSGARRENA: Kanpainaren mekanika

20.000 txartel sortuko dira eta kanpainan parte hartuko duten lokalen artean banatuko dira.

Txartel guztien artean, zuzeneko saria dutenak nahastuko dira, eta gainerakoek 100 euroko erosketabonuen azken zozketan parte hartu ahal izateko zenbaki bat izango dute. Zozketa hori irailaren 30ean egingo da Zizur Nagusiko udaletxeko areto nagusian.

SEIGARRENA: Parte-hartzaileak

Promozio honetan parte hartu ahal izango dute 18 urtetik gorako edozein pertsona fisikok, baldin eta beren adina indarreko nortasun-agiriarekin (NAN edo AIZ) egiazta badezakete, eta erosketa bat egiten badute parte hartzen duten saltokiren batean. Gutxienez 5 € erosiko dira, eta 5 €-ko erosketa bakoitzeko txartel bat emango da, gehienez 6 txartel (30 €).

ZAZPIGARRENA: Sariak

Kanpainan bi sari mota egongo dira:

1. Herriko saltoki, ostalaritza eta zerbitzuek emandako gauzazko zuzeneko sariak.
Sariak txarteletan eta zein establezimendutan trukatu ahal izango diren zehaztuko da. 2020ko abenduaren 31ra arte egongo da horretarako epea.
2. Saritu gabeko txartelak irailaren 30ean Zizur Nagusiko udaletxeko areto nagusian egingo den 100 euroko 10 erosketa-bonoren zozketan sartuko dira.

ZORTZIGARRENA: Erosketa bonoen zozketa

Erosketa-bonoen irabazleek 15 egun izango dituzte Zizurreko Udaleko Toki Garapen Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko. Datu pertsonalak eman beharko dituzte, eta, ondoren, kanpainan parte hartzen duten saltoki, zerbitzu eta ostalaritzek hamar irabazleei buruzko informazioa jasoko dute. Horietako edozeinek saria erabili behar duenean, nortasunak bat datozela egiaztatu beharko dute NANarekin. Saltokiak edo ostalaritzak opari-bonoan erosketa egin den lokalaren izena eta horren zenbatekoa adierazi beharko dute.

Ondoren, saltokiak dagokion erosketa-tiketa aurkeztu beharko du, sinatuta eta sarituaren NAN zenbakiarekin, Zizur Nagusiko Udalean, eta bertan dagokion zenbatekoa ordainduko zaio.

Erosketa-tiketa aurkezteko epea 2021eko urtarrilaren 31n amaituko da.

BEDERATZIGARRENA: Iraupena

Kanpaina 2020ko uztailearen 15ean hasiko da eta parte hartzen duten establezimendu guztietako txartel guztiak banatzen direnean amaituko da.

Zuzeneko sariak eta erosketa-bonuak 2020ko abenduaren 31ra arte baliatu ahal izango dira, eta ezingo da saririk trukatu, ezta egun horretatik aurrera erosketa-bonuak baliatu ere.


HAMARGARRENA: Oinarriak onartzeko konpromisoa

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar, eta oinarri horiek betetzen ez dituzten parte-hartzaile guztiak kanpoan geratzen dira.

Oinarri hauek Zizur Nagusiko Udalaren webgunean argitaratuko dira, eta parte hartzen duten denda, ostalaritza-lokal eta zerbitzuetan egongo dira jendearen eskura.

HAMAIKAGARRENA: Lehiaketetako irabazleen eta parte-hartzaileen datu pertsonalen tratamenduari eta datuen argitalpenari buruzko informazioa

Zizur Nagusiko Udalaren ardura da datu pertsonalak tratatzea, herritarrek udalak botere publikoen jardunean egiten dituen jardueretan duten parte-hartzea kudeatzeko. Indarrean dagoen legeria betez laga ahal izango dira datuak. Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea du udal-bulegoetara joz. Lehiaketa honetarako datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio gehigarria



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de **Zizur Mayor**

Parque ErreniegaParkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayor.es

gure webgunean kontsulta dezakezu, datuen babesari buruzko lege-ohar xehatuaren atalean:
www.zizurmayor.es

Zizur Nagusiko Udalak eskubidea du irabazleen izenak eta/edo irudiak zabaltzeko egokitzat jotzen dituen komunikazio-bide edo -moduen bidez, eta konpromisoa hartzen du irudi horiek erabiltzeak ez diezaiola kalterik eragin ohoreari eta intimitateari, datuen babesari buruzko araudia eta ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea errespetatuz. Bestalde, jakinarazi du ez duela inolako konpentsaziorik egingo jasotako eta zabaldutako irudiengatik.